


2024/25 ikasturterako GRAL proposamena nola egin


1. Ikasleak gai proposamena egin ahal izateko, **tutore batekin adostuta izan behar du.**
2. Gai proposamena GAURren bidez egingo da, **2024ko martxoaren 13tik 19ra.**

** 2024/25 ikasturtean ikasketei berrekiteko asmoa duten ikasleak ezin dira GAURren sartu. Hortaz, gai proposamena **idazkaritzan aurkeztu beharko dute paperean**, taulan eskatzen den informazioa aipatuz, epe barruan eta Eskaera Orokor orri bati erantsita.*

3. Irakasleek onartuko dituzte proposamenak, 2024ko martxoaren 20tik 22ra.
4. Dekanordetzatik proposamenak baliozkotuko dira 2024ko uztailetik aurrera.
5. Ikasle bakoitzak PROPOSAMEN BAKARRA aurkeztu dezake.



1.- GAURren Karrera Amaierako Proiektuak/Gradu Amaierako Lanak atalean sartu eta **Proposamenak** eta **Berria** ataletan egin klik.



2.-Proiektu/Lan Proposamenaren Datuak orria irekiko da.

3.- Hurrengo orrialdeko taulan aipatzen den informazioarekin beteko dira eremuak.

Eremuaren izena GAURren	EREMUETAN JARRI BEHARREKO INFORMAZIOA
Titulua eta Titulazioa	Lanaren izenburua eta ikaslea ikasten ari den gradua aipatuko dira (<i>Gehienez 500 karaktere</i>).
Azalpena	1.- Zer gai proposatzen den azalduko da eta graduarentzat duen garrantzia arrazoitu (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>).
Egin beharreko lanak	1.- Gaiari lotutako oinarrizko bibliografiaren bost aipamen egingo dira. 2*.- Gaia lantzeko jarraituko den bidea zehaztuko da – estrategia, kronograma, etabar- (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>).
Helburuak	Lanaren helburuak eta aurreikusten diren ondorioak aipatuko dira (<i>Gehienez 2000 karaktere</i>).
Orduak guztira	300
Iraupena	1/6/2024 – 30/9/2024
Hizkuntza	Euskara, gaztelera edo ingelesa
Zuzendaria	Gai proposamena zein irakaslerekin adostu den adierazi.